


LORALDIA PRODUKZIOAK!



# MIRA HADI

Eulalia  
Abaitua  
andre-  
begietan

LORALDIA  
PRODUK  
ZIOAK!

Antolatzaileak:



Sustatzaileak:



Bobesleak:



**Aitzindaria izan zen emakume baten bizitza eta irudi-lana kontatzen duen sentikari ikusgarria.**

**Gure Memoriaren gaineko gogoeta.**

---

TITULUA

**MIRA HADI**  
**Eulalia Abaitua**  
**andre-begietan**

---

GENEROA

**Teatroa + musika + arte**  
**bisualak**

---

GAIA

**Eulalia Abaitua**  
**argazkilariaren bizita**  
**eta lana. Gure**  
**Memoria.**

---

HIZKUNTZA

**Euskara**

---

IRAUPENA

**60'**

---

EKOIZPENA

**Loraldia**

---

SORMEN EGONALDIA

**Irailean.**

---

ESTREINALDIA

**Arrigorriaga**  
**Lombo Aretoan**  
**2023/10/6**

---

BIRA

**2023ko urritik**  
**aurrera**



Zuzendaritza artistikoa

**Getari  
Etxegarai**



Aktorea

**Maria Urcelay**


Musikaria eta kantaria

**Lide Hernando**



Arte Bisualak

**Alphax**



Dramatugia

**Patxo Telleria**



EKOIZPENA

**Loraldia**





Argazkilaritzari buruzko hitzaldi bat ematera doa aditu bat (Maria Urcelay). Haren ondoan musikari batek (Lide Hernando) soinu banda jarriko dio berbaldiari.

Milioka selfie ateratzen diren saio honetan, gure memoria bisuala nola osatu den kontatuko eta kantatuko digute taulen gaineko bi sortzaileek.

Eulalia Abaituaren bizitzaren pasarte esanguratsuak eta batez ere bere argazkirik ikusgarrienak izango dira istorio honen mamia.

Nola begiratzen zion gizarteari Abaituak, zer enfokatzen zuen eta zer ondare utzi digun baliogarriak izango dira gogoeta egiteko.

Publikoari begira, laugarren horma puskaturik, protagonistek emakume aitzindari honen gorazarre plazaratuko dute. Ezinbesteko memoria ikusaraziko digute.

---

## GURE MEMORIAREN IRUDIAK

---

**EULALIA ABAITUA** argazkilariaren bizitza aitzindaria ez da ezaguna gurean. Bilbotik Liverpoolera abiatu zen eta Ingalaterran argazkilaritza deskubritu zuen.

Argazki etnografikoaren sortzaile aparta eta teknikan berritzailea. Bidegile nabarmena. Ikuskizun honetan haren bizitza puskak kontatuko ditu begirada garaikide baten bitartez. Gure memoria bisualaren artisau ezinbestekoa izan baitzen. Haren argazkiak izango dira dramaturgiaren protagonistak.

---

## ARGAZKIGINTZAN AITZINDARIA

---

## **Bizitzaren pasarte nabarmenenak**

Bilbon jaio zen, 1853an, XIX. mendearen erdialdean.  
Bartzelonan ikasi zuen.

Nerabe izanik Liverpoolera abiatu zen familiarekin.  
Giza interesa zuen sortzailea.

Herri xehea eta eguneroko bizitza jarri zituen  
ikusmiran.

Euskal usadio zaharrak eta festak bildu zituen  
irudietan.

Emakumeak, bereziki izan zituen ikusmiran.

Gure herrien irudi kronista: Bilboko itsasadarra,  
Lekeitio, Mundaka, Ondarroa, Donostia, Santoña,  
Arratia...

Bidaia-argazkiak ere burutu zituen: Italia, Venecia,  
Marocco, Lourdes, Malaga, Madril, Creta...

Plaka estereoskopikoekin euskal argazkilaritza  
berriztu zuen.

Argazkilaritza antropologikoaren ordezkari bikaina.  
1943an hil zen Bilbon 90 urterekin.

---

# **BIDEGILE BATEN BIZITZA IKUSTARAZI**

---



# DRAMATURGIAK DIO

MIRA HADI  
Eulalia Abaitua  
andre-begietan

**“Neskatoak ezin du imaginatu jakinmin horrek zelako garrantzia izango duen gure herriaren memorian. Zer dugun, non gauden, nor garen.”**

**“Argazki gehiago ikusten ditugu egun bakar batean, duela ehun urte gure bizitza osoan baino.”**

**“Akordatzen naiz oroimena garela. Oroimena ala ia ezer ez.”**

**LORALDIA**  
PRODUK  
ZIOAK!

## **Maria Urcelay (Bergara-Bilbo 1977)**

Nahiz eta kazetaritzan lizentziatua izan, antzerkilaritzan murgildu nintzen orain dela hogeita piku urte. Data horretatik aurrera interpretazioaren alor guztiak ikutu ditut: sorkuntza, zuzendaritza, gidoilaritza, irakaskuntza, ahotsaren lanketa eta nola ez, antzezpena.

Nire proiektuak aurrera ateratzeaz gain, konpainia ezberdinekin aritu naiz orduetik: Antzerkiola Imaginarioa, Khea Ziater, Hortzmuga, Doos Kolektiboa, Arriaga Antzokiko ekoizpenak... eta beste horrenbeste egitasmo ezberdinetan kolaboratu dut. Tarteka irrati, telebista eta zineman ere ibili naiz (Pagafantas, Eskamak Kentzen, Goenkale...)

---

## **AKTOREA**

---



## Lide Hernando (Donostia 1991)

Komunikazio Graduan tituluduna da.

Haurtzarotik kultur alor ezberdinek interesa piztu diote, batik bat musikak, literaturak eta ikus-entzunezkoak. Liher rock taldearen sortzaile eta abeslaria da; taldeak 2015. urtetik maketa bat eta lau disko atera dituelarik. Halaber, musikaren alorrean, gospelean ere aritzen da 2017. urtetik, Ispirit izeneko taldean. Literaturari dagokionez, momentu honetan eleberri bat idazten ari da Eusko Jaurlaritzak emandako beka baten bitartez.

Ikus-entzunezkoak eta antzerkia, bestalde, betidanik izan ditu jo-puntuan; honakoa izango litzateke antzerkian bere lehenebiziko esperientzia.

---

## MUSIKARIA

---



## Getari Etxegarai (Gasteiz - Bilbao, 1981)

Euskal aktore eta antzerki zuzendaria da.

Hamazazpi urterekin lanean hasi zen, hasieran telebistan, "Ez gaude konforme", "Los Serrano"... geroago teatroan "Lotsagabe" Vaiven produkzioak edo "Errudun jaioak" Tanttaka teatroa.

Hemeretzi urterekin euskal aktoreen batasunak errebelazio saria eman zion eta ordutik aurrera eten barik aritu da lanean, aktore, zein zuzendari lanetan.

Zuzendaritzako obra batzuk: "Mami Lebrun", "Mi último baile", "Lur", Fadoak entzuten zituen gizona"...

Ikus-entzunezko lan batzuk: "Barre Libre" "Erlauntza", "Marixabel", "Intimidación"...

Ikusi izan dugu baita EABko azken gala zuzentzen, bakarrizketa feministak antolatzen baita kurtsoak emanten ere.

Polifazetikoa, langile amorratua eta konprometitua.

---

## ZUZENDARITZA ARTISTIKOA

---



## **ALPHAX. Antonio García-Alfageme (Getxo, 1977)**

Alphax arte eszenikoen esparruan ikus-entzunezko eszenografiaren diseinuan espezializatutako bideoartista da. Bere lanaren oinarritzko ardatza mugimenduan dagoen irudia da. Teknologia berriak adierazpen-helburuekin erabiltzen ditu, inongo teknika zehatzetan zentratu gabe.

Mikel Urdangarin, Ken Zazpi, Hortzmuga, Deabru Beltzak, Markeliñe, Ziomara, Adriana Bilbao... sortzaileekin egin du lan.

MIRA HADIk Eulalia Abatidaren irudi sorta bat sortu du (gordetzen diren 2500 argazkien artean), morphing, deepface eta mapping tekniken bidez.

---

## **ARTE BISUALAK**


---



## Patxo Telleria (Bilbao 1960)

Patxo Telleria, zine eta antzerki idazle, zuzendari eta aktorea. Dozenaka antzezlan estreinatu ditu, besteak beste, **“Torito Bravo”**, **“Kontenedore Baten Istorioak”**, **“Euskera Sencilloaren Manifiesto”**, **“Lingua Nabajorum”**, **“Zergatik Jamil?”**, **“Ez Dok Hiru”**, **“Soinujolearen Semea”**, **“Pankreas”**, **“Azken trena Treblinkara”**, **“Simplicissimus”**, **“Ghero”**, **“Ezdokero”**...

## DRAMATURGOA





# BALOREAK

MIRA HADI  
Eulalia Abaitua  
andre-begietan

emakume protagonista

genero ikuspegia

gure memoriaren aldarrikapena

giza konpromisoa

ikuspegi garaikidea eta aitzindaria

## **Ekoizpenaren arlo artistikoa**

Ikuskizun honek hiru osagai artistiko uztartzen ditu: ikus-entzunezkoak (Eulaliaren irudiak), teatroa eta musika.

### **Proiektuaren osagarriak:**

- Argazkilariaren bizitzaren narrazioa eta kontaketa.
- Argazkilariaren irudiak, arte bisual bihurturik.
- Kantugilearen kanta berriak memoriari jarriak.

**Protagonista:** EULALIA ABAITUA eta HAREN SORMEN BISUALA

**Xedeak:** emakumeen historia ahalduntzea eta ikustaraztea. Gure memoriaren garrantzia aldarrikatzea.

2022an Loraldia Festibalean Patxo Telleriak idatzitako testua estreinatu genuen Arriagan. Arrakasta handia izan zuen, ikuskaria oso ikusgarria delako eta itzaletik argira gure lehen emakume-argazkilaria eramaten duelako.

2023an, berriz, produkzio propio hau berreskuratzea erabaki du Loraldiak. Horrela, lanean jarri gara berriro ere Patxo Telleriaren dramaturgia tauletara eramateko eta bira bati ekiteko.

2023ko urrian estreinatuko da bigarrenez. Hemendik aurrera Euskal Herriko teatro sarean ibiltzeko prest izango da. Formatua oso erabilbarria izango da eta kontaktak ez du aldaketarik izango. Emakumezko sormena aldarrikatzen duen ekoizpena da.

# 2022KO IRUDIAK

MIRA HADI  
EULALIA ABAITUA  
ANDRE-BIHOTZETAN



LOR<LDIA  
PRODUK  
ZIOAK!



## **Euskaraz egiten den kultura da gure xedea, euskal kulturaren industria sustatuz eta transmisioa landuz.**

2015an sorturik ekimen honek 5 lan eremu nagusitan lan egiten du: Loraldia Festibala (aurten 9 edizioa), Eskola, Gazteak, Plaza eta Produkzioak.

2016tik dozena bat produkzio propio ekoiztu ditugu tamaina eta tankera ezberdinetakoak, arte-disziplina ezberdinekin: Literatura, bertsolaritza, musika, arte eszenikoak...

Transmisioaren bidean, produkzioetan, euskal kulturaren erreferente izan diren pertsonak edo gaiak landu ditu: Anton Abbadia, Eulalia Abaitua, Elkano, Iparragirre, Laboa...

Informazio gehiago: [www.loraldia.eus](http://www.loraldia.eus)

**LORALDIA**

**PRODUK  
ZIOAK!**

## **Kontratazioa**

### **Solobe Art**

Teresa: (+34) 650 038 731 /  
teresa@solobeart.com

Dinora: (+34) 690 078 725 /  
info@solobeart.com